

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure ideia aurrera ateratzeko ezinbestekoak dira jarduera batzuk. Horretarako, gutako bakoitzak lan garrantzitsu bat izango du, bere zaletasun eta gaitasunen arabera izango dena.

Lehenik eta behin, jarduera garrantzitsuena, dudarik gabe, makinak sortzea izango da. Talde lana izanik, lau nagusien artean egingo dugu lan, nahiz eta langileak izan beharrezkoak baitira, horrela, lana errazago egingo dugu eta denbora asko aurreztuko dugu.



Urko makinak sortzeko langileetako bat da, eta bere lana funtsezkoa da enpresaren arrakastarako. Berak egindako lan horretatik besteek egin behar dugulako lan. Pauso hau gaizki eginez gero beste guztia ezingo da aurrera eraman. Horregatik, urkoren lanak garrantzi handia du.

Josu ere makina sortuko duen langile bat izango da, eta, aldi berean, makina sortzen duten langileen arduraduna. Horren arira, biltegiko langileen antolaketa eta kudeaketa bere gain hartuko ditu. Bere lana langileek lana aurrera eramatea eta denbora ahalik eta gehien aprobetxatzea da.



Nahia arazoak konpontzen dituen pertsona da, hau da makinak edo erosleak arazoak baditu Nahia arduratuko da horiek konpontzeaz. Beti arduraz jokatzeko du eta baliabidetan esan dugun bezala hainbat gaitasun baititu horretarako. Gainera diseinatzailea ere izango da, ideia berriak sortuz. Horrez gain, webgunearen diseinuaz arduratuko da, ideia berritzaileekin diseinu modernoak sortuz eta erabiltzaileen esperientzia hobetuz.

Ainara publizitateaz eta salmentaz arduratuko da. Sormena eta komunikatzeko gaitasun bikaina ditu, eta ideia erakargarriak sortuko ditu publikoa erakartzeko. Bere lana funtsezkoa da gure makina jendearengana iristeko eta bezeroak lortzeko. Horrez gain, bezeroen iritziak kontuan hartuko ditu makina hobetzeko.

Jarduera hauek guztiak funtsezkoak dira gure enpresa aurrera ateratzeko eta ondo funtzionatzeko. Taldean lan eginez, bakoitzaren zaletasunak aprobetxatuz, helburuak lortzea errazagoa izango da, eta, aldi berean, eraginkortasuna eta giro ona mantentzea bermatuko dugu. Guztion ahaleginari eta koordinazioari esker, berrikuntzarako bidea irekiko dugu. Horrela, gure enpresak ez du bakarrik biziraungo, baizik eta, hazkunde iraunkorra eta kalitatezko emaitzak lortuko ditu. Garrantzitsua da elkarri entzutea, iritzi desberdinak kontuan hartzea eta etengabeko hobekuntzaren alde lan egitea.